

# TXOSTENA

2 0 2 3



**KOOPERATIBEN  
KONTSEILUA**

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua  
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi



## KOOPERATIBEN KONTSEILUA

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua  
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi

“Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (KOOPERATIBEN KONTSEILUA) kooperatibismoa sustatu eta zabaltzea bermatuko duen topaketa-organoa da, eta euskal herri-administrazioen aholkulari kooperatiba-gaietan.

Halaber, balio eta printzipio kooperatiboak onartu, defenditu, sustatu eta zabalduku ditu”.

Gaur egun, bere antolaketa eta funtzionamenduari buruzko gaiak “Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren Antolamendu eta Jarduera Araudiak” arautzen ditu (EHAA, 55.a, 2000-03-20koa).

### **Egoitza soziala:**

Reyes de Navarra, 51

01013 GASTEIZ

Tfnoa. 945 121 155

[info@kooperatibenkntseilua.eus](mailto:info@kooperatibenkntseilua.eus)

[www.kooperatibenkntseilua.eus](http://www.kooperatibenkntseilua.eus)

# TXOSTENA

2 0 2 3



**KOOPERATIBEN  
KONTSEILUA**

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua  
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi



2023. urtea, hain zuzen, gure gogoan geratzeko modukoa izan da. Hainbat gertaera garrantzitsu ospatu ditugu, hala nola gure erakundearen 40. urteurrena, Donostia Ekonomia Sozialaren Hiriburu izatea, Europako Batzordearen Denon Artean Saria edo Eusko Jaurlaritzarekin beste Asmo eta Lankidetzak Akordio bat sinatu izana.

Eta gertaera horiek guztiak, Kontseilu Gorenaren historiara pasatzeaz gain, baliagarriak izan dira euskal enpresa kooperatiboaren indarra erakusteko eta euskal kooperatibismoaren sustatzaile eta hedatzaile gisa dugun zeregina finkatzeko.

Gure marka berria dugu lehenik eta behin: KOOOPERATIBEN KONTSEILUA, gure 40. urteurrenako ekitaldi hunkigarrian aurkeztu zena. Ekitaldian, bere historiako uneren batean Kontseiluaren Osoko Bilkura osatu duten 120 pertsonen egindako lana aitortu zen.

Euskal kooperatibismoak urte honetan zehar izan duen nazioarteko proiektzioak bi une oso nabarmen izan ditu: Kooperatiben Nazioarteko Eguna eta Denon Artean Saria, biak ere Donostia 2023ko Ekonomia Sozialaren Hiriburu izatearen testuinguruan.

Garapen Jasangarriaren aldeko Kooperatiben Nazioarteko Egunaren ospakizunean, kooperatibetako munduko hainbat liderrek, Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari instituzionalek eta bost kontinenteetako erakunde eta enpresa kooperatiboek parte hartu zuten. Ekitaldi global eta berezia izan zen, enpresa kooperatiboek garapen ekonomikoari eta enplegua sortzeari jasangarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren printzipioekin egiten dioten ekarpena egiaztatu zuena. Mundu osoan transmititu zen zuzenean, eta ehunka pertsonak jarraitu zuten.

Denon Artean Sariak ere nazioarteko izaera izan zuen, hirugarren edizioan saria Europako Batzordeari eman baitzitzaion, bere erabakiekin ekonomia soziala eta bereziki kooperatibismoa hedatzen sustatzeagatik. Horren osagarri, 120 pertsona baino gehiagoko kontzertu kooperatibo bat egin zen, eta mila ikuslek jarraitu zuten.



Nabarmendu beharreko beste mugarri bat Kontseilu Gorenak, Konfekooppek eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako Asmo eta Lankidetzak Akordioa da, kooperatibismoaren garapenaren alde hiru erakundeek duten konpromisoa berresten duena. Akordio hori, sinatu zen hirugarrena, datozen urteetarako lan orri hitzartu eta bateratua izango da, egungo une sozial eta ekonomikora egokitua.

Memoria honetan, gainera, urte honetan zehar egindako eta berdintasunarekin –hala nola Martxoaren 8a ospatzea–, ekintzailatza kooperatiboa sustatzearekin, balio kooperatiboak zabaltzearekin... dugun konpromisoa sendotzen duten beste ekimen asko daude jasota. Horiek guztiak agerian geratu dira 2022-2024 aldiko plan estrategikotik sortzen den gestio planaren ebaluazio positiboan, konpromisoen %90 baino gehiago garapen fasean edo dagoeneko eginda baitaude.

Eratu eta berrogei urtera, Euskadiko Kontseilu Gorena, KOOOPERATIBEN KONTSEILUA, kooperatiben sustapen eta hedapen organo gorena izatea posible egiten duten pertsona eta erakunde guztiak zorientzea besterik ez zait geratzen, enpresa kooperatiboa euskal enpresa sarearen protagonista nagusia izan delako eta hala izaten jarraitzen duelako.

Patxi Olabarria  
Presidentea





---

## 1. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren osaera **7**

---

## 2. Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea **11**

### 2.1. Sustapena:

2.1.1. 40. urteurrena.

2.1.2. M8: Kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago.

2.1.3. Kooperatiben Nazioarteko Eguna.

2.1.4. Denon Artean saria.

2.1.5. Kooperatibismoaren etorkizuneko erronkei buruzko jardunaldia.

2.1.6. EHUko udako ikastaroak.

2.1.7. Zuzenbide Kooperatiboaren Nazioarteko IV. Foroa: IUS kongresua Cooperativum.

### 2.2. Zabalkundea:

2.2.1. Podcast kanala.

2.2.2. Mondragon City Challenge.

2.2.3. Beste komunikazio ekintza batzuk.

### 2.3. Lankidetzak:

2.3.1. Erakunde laguntzaileekin hitzarmenak.

2.3.2. Lankidetzak akordioak.

2.3.3. Kooperatiben Euskal Behatokia.

2.3.4. Ekitaldietan parte hartzea.



---

## 3. Administrazioarekiko harremana eta administrazioari laguntzea **35**

- 3.1. Aginduzko txostenen lanketa.
- 3.2. Kontsultak.
- 3.3. Asmo Akordioaren sinadura.
- 3.4. Lankidetzaren instituzionala.

---

## 4. Kooperatiben Erroldako datuak **43**

- 4.1. Kooperatiba berriak.
- 4.2. Kooperatibak azkentzea: eraldaketak eta likidazioak.
- 4.3. Kooperatiben errolda.

---

## 5. Gatazkak konpontzeko zerbitzua **47**

- 5.1. Arbitraje Erregelamendu berria.
- 5.2. Euskadiko Kooperatiben Arbitraje Auzitegia - BITARTU.
- 5.3. Kontsultak, Adiskidetzeak eta Arbitrajea.

---

## 6. Erakunde partaidetuak **55**

- 6.1. Elkar Lan, S. COOP.
- 6.2. Elkargi, SGR.

---

## 7. 2023ko ekitaldi ekonomikoa **59**

- 7.1. Balantze Ekonomikoa eta Soziala.
- 7.2. Kudeaketa Planaren betetze maila.



Euskadiko  
Kooperatiben  
Goren  
Kontseiluaren  
osaera

# Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren osaera



Hau da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren osaera 2023-12-31n:



**Patxi Olabarria jauna**  
(Presidenteak/Konfekoop)



**Jokin Diaz jauna**  
(Presidenteordea/Eusko Jaurlaritzak)



**Eugenio Jiménez jauna**  
(Kontseilukidea/Eusko Jaurlaritzak)




**Ana Camacho andrea**  
(Kontseilukidea/Eusko Jaurlaritzak)



**Joseba Mariezkurrena jauna**  
(Kontseilukidea/Bizkaiko Foru  
Aldundiak)



**Unai Andueza jauna**  
(Kontseilukidea/Gipuzkoako Foru  
Aldundiak)



**Ander Larrinaga jauna**  
(Kontseilukidea/Arabako Foru  
Aldundiak)

# Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren osaera

---



**Rosa Lavín andrea**  
(Kontseilukidea/Konfekoop)



**Iñaki Nubla jauna**  
(Kontseilukidea/Konfekoop)



**Alejandro Elejabarrieta jauna**  
(Kontseilukidea/Konfekoop)



**Mikel Larrea jauna**  
(Kontseilukidea/Konfekoop)




**Pablo Durana jauna**  
(Kontseilukidea/Konfekoop)



**Iñigo Albizuri jauna**  
(Kontseilukidea/Konfekoop)



**Idurre Maortua andrea**  
(Kontseilukidea/Konfekoop)



**Jon Loroño jauna**  
(Kontseilukidea/Konfekoop)

# Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren osaera



**Oier Lizarazu jauna**  
(Kontseilukidea/Konfekoop)



**Marta Enciso andrea**  
(Kontseilukidea/  
Deustuko Unibertsitatea)



**Ainara Udaondo andrea**  
(Kontseilukidea/  
Mondragon Unibertsitatea)



**Aitziber Etxezarreta andrea**  
(Kontseilukidea/  
Euskal Herriko Unibertsitatea)

## Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko langileak

2023ko ekitaldian, pertsona hauek osatzen zuten plantilla:



**Belen Balerdi andrea**  
(Idazkari Nagusi Teknikoa)



**Santiago Merino jauna**  
(Letradua-Aholkularia)



**Ion Azpiazu jauna**  
(Administraria)





# Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



## 2.1. Sustapena

### 2.1.1. 40. urteurrena



2023ko mugarri nagusia Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren 40. urteurrenaren ospakizuna izan da. Ospakizun horrek aukera eman du estatuko, Europako eta munduko kooperatiba munduan, bere izaera publiko-pribatuagatik, entitate bakar gisa duen sendotasunaren zabalkundea egiteko. Euskalduna jauregiak ekitaldi handi bat hartu zuen 2023ko otsailaren 27an, Iñigo Urkullu lehendakaria bertan zela, eta bere historian noiz edo noiz Kontseiluaren Osoko Bilkuran parte hartu duten 120 pertsonek egindako lana aintzatetsi zen.

Publiko ugari baten aurrean, Kontseilu Gorenak KOOPERATIBEN KONTSEILUA marka berria ezagutarazi zuen, kooperatibismoaren zazpi printzipioak biltzen dituen irudi berrituarekin batera. Webguneak ere etapa berrira egokitutako diseinua dauka, domeinu berri batekin: [www.kooperatibenkonselua.eus](http://www.kooperatibenkonselua.eus)



Ospakizunaren aurretik, otsailaren 21ean, Eusko Legebiltzarreko presidente Bakartxo Tejeriak harrera egin zien Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideei eta 40 urte hauetan Kontseiluko presidente izan diren pertsoneri.

Urteurrena urte osoan gogoratzeko, 2023an Kontseiluak egutegi bat argitaratu zuen, 1983an jaiotako kooperatibistak izan zituena protagonista.

40. urteurrenaren inguruan egindako komunikazio kanpainak harrera ona izan zuen Euskal Herriko komunikabideetan. Onda Vasca, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Naiz Irratia eta Ser Euskadin iragarkiak emititu ziren. Hiru prentsa ohar bidali ziren hedabideetara Kontseiluaren historiaren xehetasunak helarazteko, Euskalduna Jauregiko ekitaldiari buruzko alde zuzeneko informazioa emateko eta, geroagoko bat, ospakizunaren eta argazkien laburpen batekin.

Komunikabideetan parte hartze ugari egin ziren. Patxi Olabarriak Noticias Taldean, Eldiario.es-en eta Garan; Belen Balerdik Radio Vitorian; Aianara Udaondok eta Jokin Diazek Onda Vascan. Cadena Ser Euskadik Patxi Olabarria, Arantza Laskurain, Marta Enciso eta Alfredo Ispizuaren partaidetza izan zuen programa bat emititu zuen. Onda Vasca, El Correo, Grupo Noticias, ETB, TVE, Gara, Estrategia Empresarial eta Eldiario.es-ek 40. urteurreneko ekitaldiari buruzko informazioa zabaldu zuten.



## 2.1.2. M8: Kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago

Hirugarren urtez jarraian eta "Kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago" lelopean, Goren Kontseiluak eta KONFEKOOPEk emakume kooperatibisten lana aitortzeko baliatu zuten martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, Gasteizko Goiuri jauregian. Oraingoan, Bidegintza familia eta gizabanakoarentzako zerbitzu kooperatiba, Ediren osasun kooperatiba eta Leire Mugerza Mondragon Korporazioko Batzorde Iraunkorreko presidentea izan ziren omenduak, "kooperatibismoaren barruan Euskadiko emakumeen aukera berdintasunari eta ahalduentzari egindako ekarpenagatik".

Belen Balerdi KOOPERATIBEN KONTSEILUko idazkari nagusi teknikoak eta Rosa Lavin KONFEKOOPEko presidentea anfitrioi jardun zuten beste ekitaldi batean, eta Idoia Mendia bigarren presidenteorde eta Lan eta Enplegu sailburuari egokitu zitzaion inaugurazio instituzionala.



Ekitaldian izan ziren, halaber, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakaria eta Mainer Etxebarria lehen alkateorde eta Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo zinegotzia, eta Eusko Jaurlaritzako



# Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Nerea Melgosak eman zion amaiera.

**Ekitaldian aintzatetsi diren kooperatibak eta ibilbide profesionala hauek dira:**

**Bidegintza** 1988an sortu zen elkarte gisa, pertsona batzuek Bilboko parte Zaharreko gazteen egoeraren inguruan zuten kezkatik abiatuta. 2013an, Bilboko 5. barrutiko eta beste auzo batzuetako biztanleen garapen pertsonala eta komunitarioa sustatzeko kooperatiba bihurtu zen, kontzientzia hartzean eta gizabanakoaren eta komunitatearen parte hartzean eta protagonismoan oinarritutako lan komunitarioaren ikuspegitik.



**Ediren** Gasteizen dagoen kooperatiba bat da, eta pertsonen osasuna eta ongizatea garatzen lagundu nahi du, esku hartze profesional terapeutiko, sozio-hezitzaile eta prestakuntzako bidez, eta eraldaketak sustatuko dituzten elementuak eskainiz.

**Leire Mugerzak** (Mutriku, 1976) Ingeniaritza Mekanikoko ikasketak egin zituen Mondragon Unibertsitatean, eta 1998an ekin zion ibilbide profesionalari Bizkaiko Eika kooperatiban, bere jarduera arlo industrialean garatuz, non hainbat funtzio garatzeko aukera izan zuen. 2008an Lea-Artibai Ikastetxean

# Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



jarraitu zuen bere jarduna, MONDRAGON Taldeko Ezagutza Arloaren barruan. Kongresuko Batzorde Iraunkorrek 2022ko hasieran izendatu zuen Mugerza MONDRAGONeko organo horretako eta Kongresuko lehendakari. 2012tik da Batzorde Iraunkorreko kide eta, lehendakari izendatu ondoren, kargu hori betetzen duen lehen emakumea da.





## 2.1.3 Kooperatiben Nazioarteko Eguna

Donostia 2023ko Ekonomia Sozialaren hiriburua dela eta, Goren Kontseiluak eta KONFEKOOPEk ahaleginak batu zituzten Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioarekin -COCETA- eta Nazioarteko Aliantza Kooperatiboarekin -ICA- batera, Kooperatiben Nazioarteko Egunean ekitaldi global eta bakar bat antolatzeko, Donostiatik eman izena mundu osoarentzat. Garapen Iraunkorraren aldeko Kooperatiben Nazioarteko Konferentzia uztailaren 1ean elkartu zen, Donostiako udaletxean, eta mundu osoko kooperatiben liderrek, Gobernu zentral eta Jaurlaritzako ordezkari instituzionalek eta bost kontinenteetako hainbat erakunde eta enpresa kooperatibok parte hartu zuten.





# Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Ekitaldiaren ardatza mundu hobearen eraikitzearen tresna onena den formula kooperatiboa dela erakustea izan zen, 2023ko testuinguruan, Nazio Batuen 2030 Agendarako urte giltzarri gisa, Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH) berrikusten ari baitziren goi bilera batean.

Garapen Iraunkorraren aldeko Kooperatiben konferentzia 6 bloketan banatu zen: bost, 17 GJHak identifikatzeko eta lantzeko, eta beste osagarri bat, gazteriari zuzendua. Mahai horietako bakoitza kooperatiben munduko pertsona esanguratsu batek moderatu zuen.

Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak eman zizun ongietorria ekitaldira, bideo bidez. Patxi Olabarria Goren Kontseiluko presidentek, Wenyan Yang COPACeko lehendakariak (Kooperatibak Sustatzeko Nazio Batuen Batzordea) eta Ariel Guarco ICAko presidentek egin zuten konferentziaren sarrera.





# Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Mahai guztietan euskal kooperatiben ordezkaritza egon zen, dituzten esperientziak nazioarteko beste erakunde batzuekin partekatuz:

**Pertsonen ongizatearen alde** izeneko mahaietan, Udapak eta Eroskik osasunarekin, ongizatearekin eta pobreziaren amaierarekin dituzten konpromisoak azaldu zituzten, Ukrainako nekazaritza kooperatiba batekin eta Argentinako Creando Conciencia kooperatibarekin batera. Bigarren mahaietan, **Mundu bidezkoago baten alde**, hezkuntza eta genero berdintasuna izan ziren protagonistak, eta ICAko genero batzordeko presidente Xiomara Cespedesek eta Indiako emakumeen kooperatiben federazioko presidente Mirai Chatterjeek hitz egin zuten. Goiener talde kooperatibo herritarrak eta Leire Mugerza Mondragon Kongresuko presidentek esperientziak partekatu zituzten Finlandiako kooperatiba batekin, **Komunitateen ongizatearen alde** mahaietan, Rosa Lavin KONFEKOOPEko presidentek moderatuta. Laugarren blokean **Planetaren ongizatearen alde** landu zen, Kamerungo eta Fijiko eta



# Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Gasteizko Eraman kooperatibako ordezkariekin. Eusko Jaurlaritzako eta Espainiako Gobernuko ordezkariekin, lankidetza publiko-pribatua izan zen **Mundu hobea baten aldeko lankidetza gehiago** mahaiaren gai nagusia, Patxi Olabarria KOOPERATIBEN KONTSEILUko lehendakariak moderatuta.

Gazte kooperatibistek eman zieten buru mahaiei, Caja Popular Mexicanaren edo Bizipoz euskaldunaren esperientziekin, besteak beste. Amaitzeko, Rosa Lavin KONFEKOOPeko presidentea eta Luis Miguel Jurado COCETAko presidentea jardunaldiaren balorazioa egin zuten, eta Juan Antonio Pedreño CEPESeko presidentea ere bertan izan zen, eta Yolanda Diaz Espainiako Gobernuko lehendakariordeak itxi zuen ekitaldia, bideo mezu baten bidez.

Kooperatiben Nazioarteko Egunari lotutako komunikazio kanpaina irratietan emandako iragarkietan oinarritu zen: Onda Vasca, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Naiz Irratia, Herri Irratia eta Ser Euskadi. Hedabide horietan elkarrizketak egin ziren KOOPERATIBEN KONTSEILUko kontseilukideekin.



## 2.1.4 Denon Artean saria

2023ko Gizarte Ekonomiaren hiriburua Donostia izan zen eta, protagonismo hori azpimarratzeko, euskal kooperatibismoaren Denon Artean saria eman zen. III. edizio horretan, Europako Batzordeak jaso zuen saria Patxi Olabarria Kontseilu Goreneko presidentearen eskutik eta Iñigo Urkullu lehendakaria lekuko berezia zela, Nicolas Schmit Enplegu eta Eskubide Sozialen Europako Komisarioaren bidez.



Europar Batasuneko Kontseiluko Lehendakaritza Espainiaren esku egonik, Denon Artean saria Europako Batzordeari eman zitzaion, Gizarte Ekonomiak oro har eta Kooperatibek bereziki gizarteari egiten dioten ekarpenari garrantzi handiagoa ematen laguntzeagatik.





Zeremonia amaitzeko, eta emankizun berezi gisa, Sinfonia Kooperatiboa interpretatu zen, zeina, Humanity At Music proiektuaren parte izanik, MONDRAGON Korporazioak laga zion Goren Kontseiluari, une garrantzitsu horretarako, kooperatiben munduaren balioak transmititzeko eta ospatzeko. Fernando Velazquezek zuzendutako orkestra batek interpretatu zuen Sinfonia Kooperatiboa, Arrasateto Goikobalu Abesbatzaren, lubilo Bilbao Abesbatzaren eta Txorbela Otxotearen partaidetzarekin.



Ekitaldiak mila lagun inguru bildu zituen Kursaalera, eta Euskadiko komunikabideen aldetik ere informazio estaldura ona izan zuen, Patxi Olabarria Kontseiluko presidenteari eta Belen Balerdi idazkari nagusi teknikoari egindako irrati elkarrizketak barne. Gainera, Goiena taldean komunikazio ekintza espezifikoa egin zen publizitate orri batekin eta Olabarria presidenteari egindako elkarrizketa zabal batekin.



## 2.1.5 Kooperatibismoaren etorkizuneko erronkei buruzko jardunaldia

Arrasateko Garaia Berrikuntza Guneak hartu zuen kooperatiben bigarren lan topaketa apirilean, etorkizuneko estrategia berrien oinarriak finkatzeko. Saio horretan, 2022ko azaroan egindako aurreko hitzordutik ateratako ondorioei buruzko hausnarketa egin zen

40 euskal kooperatibatako ordezkariak ekintza zehatza proposatu zituzten lehen saioan dagoeneko identifikatu ziren etorkizuneko erronketarako: kooperatibistak, XXI. mendeko balio kooperatiboak, lana ulertzeko modu berriak, kooperatibismoaren legatua eta gazteria, eta etorkizuneko negoziatioak. Bi saioak Emun, Koop.E.k zuzendu zituen.







## 2.1.6 EHUko udako ikastaroak

Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen esparruan, KOOPERATIBEN KONTSEILUAK "Enpresa Kooperatiboa" ikastaroa antolatu zuen, uztailaren 14an, Donostiako Miramar jauregian.

Ikastaroa 30 lagun inguruk jarraitu zuten, Euskal Herrian oso errotuta dagoen eta nazioartean erreferentea den enpresa egiteko ereduari buruzko interes handiz. Ikastaroan parte hartu zutenek kooperatibismoaren historia eta printzipioak, kooperatibismoak gaur egun aurre egin beharreko erronkak eta sortzen ari diren eredu kooperatibo berrien adibideak ezagutu ahal izan zituzten aditu ugariren eskutik.

# Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Parte hartu zuten hizlariak hauek izan ziren: Igor Ortega (Mondragon Unibertsitatea), Marta Enciso (Deustuko Unibertsitatea), Aitziber Etxezarreta (EHU – Gezki), Rosa Lavin (KONFEKOOP), Ainara Udaondo (Lanki – Mondragon Unibertsitatea), Juan Latorre (Eraman Kooperatiba), Gotzon Gondra Elgezabal (Bizikoop), eta Patxi Olabarria eta Belen Balerdi, Goren Kontseiluko presidentea eta idazkari tekniko nagusia.







## 2.1.7 IUS Cooperativum Kongresua, Zuzenbide Kooperatiboaren Nazioarteko IV. Foroa

KOOPERATIBEN KONTSEILUA Kongresuaren babesleetako bat izan zen, non Patxi Olabarria kontseiluko presidentek “Kooperatiben arteko lankidetzaren printzipioa: iraganeko printzipioa edo etorkizunekoak?” izeneko Kongresua inauguratu zuen. Kongresuak eztabaidarako eta elkarrengandik aberasteko balio zuen, batez ere kongresuan izena emandako eta Estatutik eta nazioartetik etorriak ziren juristen artean, eta kongresuan parte hartu zuten kooperatiben eta erakundeen artean ere bai. Kongresuak, gainera, zuzenbide kooperatiboa aztertzeko tokiko eta nazioarteko sareak indartzeko balio izan zuen, KOOPERATIBEN KONTSEILUAK bere sorreratik arreta berezia eskaini dion gaia baita.



## 2.2 Zabalkundea

### 2.2.1 Podcast kanala

M8arekin bat eginda, Goren Kontseiluak 'Ahots Kooperatiboak' izeneko podcast kanala atera zuen, protagonistek lehen pertsonan kontatutako istorio hurbil eta berritzaileak biltzeko. Kooperatiben egungo errealitateari lotutako pertsonen kooperatibismoaren inguruko esperientziak eta istorioak eskaintzen dituzte, kooperatibismoari buruzko informazioa zabaltzeko eta jendeari enpresa kooperatiboak mundu justuago eta iraunkorrago batean lagundu dezakeela helarazteko.



Lehen atalak Auzolan emakume kooperatibaren historiari buruz hitz egin zuen: Berdintasunaren etsenplua 1970etik.

### 2.2.2 Mondragon City Challenge

Mondragon City Challengek, Ekintzailtza Kooperatiboaren Nazioarteko Txapelketak, 2022ko irailean hasi zuen bere bigarren edizioa, eta 2023ko udaberrian amaitu zen. Goren Kontseilua da ekimenaren antolatzaileetako bat, eta mundu osoko ikasleen artean 9 hilabetetan enpresa kudeatzeko konpetentziak eta negozio eredu kooperatibo bat baliozkotzeko gaitasuna garatzea du helburu. Gainera, epaimahai profesionaleko kide gisa parte hartzen du, Belen Balerdi idazkari nagusi teknikoak ordezkatuta.



Txapelketaren bigarren edizio horretan USA, Tanzania, Kamerun, Malaysia, Kolonia, Belgika, Alemania eta Thaiandiako 108 taldek parte hartu zuten. Amaierako ekitaldia apirilaren 21ean ospatu zen Arrasateko Amaia zineman, eta kategoria bakoitzeko hiru proiektu osatuenetako taldeek (16-18 urte eta 19-24 urte) euren plana azaldu zuten epaimahai profesional baten aurrean, eta epaimahaiak taldekideak ere interpelatu zituen.

# Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Proiektu hauek izan ziren garaile: **Gu Geu Sortzaile** (16-18 urtekoen kategorian), Alzheimerre duten pertsonen bizitza hobetzeko ekimenarekin, eta **Olatu Berdea** (19-24 urteko kategorian), mugikortasun jasangarrira bideratutako proiektua. Gainera, originaltasunaren sari bat eman zitzaion **Team Smart** taldeari, zeinak aplikazio bat aurkeztu zuen gidariei hiriko erdigunean aparkaleku bat erreserbatzeko eta ibilgailu elektrikoaren bateria kargatzeko estazio bat aurkitzeko aukera ematen diena.





## 2.2.3 Beste komunikazio ekintza batzuk

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak aldizka parte hartzen du Konfekooppek argitaratzen duen **KOOP aldizkarian**, mugimendu kooperatiboarekin lotuta Kontseiluak egiten dituen jarduerak eta ematen dituen zerbitzuak balioesteko. Artikulu hauek argitaratu dira 2023an:

“Kooperatibismoaren erronkei elkarrekin aurre egiteko hausnarketa partekatua, 40 urte euskal kooperatibismoaren motor gisa, Kooperatiben Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldi bakar eta globala, Bitartuk etapa berri bati ekingo dio Euskadiko Arbitraje Kooperatiboko Auzitegi gisa”.

Kontseilua akordio batera iritsi zen **Noticias Taldearekin**, kooperatibismoari buruzko hainbat bideo zabaltzeko hiru goiburua digitaletan: Deia, Noticias de Gipuzkoa eta Noticias de Álava. Bideoek gai hauek jorratu zituzten: Kontseiluaren irudi berria; Kooperatibismoa zer den; Bazkideak, eskubideak eta betebeharrak; Gobernantza organoak; Araubide ekonomikoa eta Etxebizitza kooperatibak.

Era berean, Diario de Noticias de Álava egunkariaren kooperatibismoari buruzko **Araba en +** izeneko saio berezi batean parte hartu zen, non urteko albiste positiboak jasotzen ziren.

Noticias de Álava

ESPECIALES ARABA ALAVÉS BASKONIA ARASKI ACTUALIDAD DEPORTES ECONOMÍA CULTURA OPINIÓN VIVIR

EN IMÁGENES Las mejores fotografías del Ironman Vitoria-Gasteiz

### La cooperativa se consolida como el mejor modelo de empresa que demanda la sociedad vasca

El cooperativismo vasco finaliza un año con un destacado reconocimiento internacional

DNA Contenido ofrecido por 18/12/23 | 12:08 | Actualizado a las 15:35



El premio (Premio Astaran Recoy), en su tercera edición, en la Comisión Europea por su contribución en favor de la economía social en general y del cooperativismo en particular. / CEDIDA

Cuando está a punto de finalizar y echando la vista atrás se confirma que este 2023 ha sido un gran año para la consolidación del movimiento cooperativo vasco en su reconocimiento y visibilidad tanto a nivel local como europeo e incluso internacional.

# Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea

## 2.3 Lankidetzak

### 2.3.1 Erakunde laguntzaileekin hitzarmenak

Esandako erakunde laguntzaileek jardute ildo horien garapenerako aurkeztu dituzten proposamenak aukeratu ondoren, 2023ko ekitaldian 253.345,20 € bideratu dira guztira ondoren zehazten diren programak kofinantzatzeko:

Zk.	2023o Jarduera / Programa	Erakundea
1	Ikasgeletan kooperatibismoa zabaltzeko kanpaina	KONFEKOOP
2	Ikasle kooperatiben esperientzia inplementatzea.	KONFEKOOP
3	Bidaia Teknikoa Andaluziara	KONFEKOOP
4	Kooperatibetako euskara planen azterketa	KONFEKOOP
5	“Hazten ikasi” programa kooperatibetan	KONFEKOOP
6	Irakaskuntza Kooperatiben 5. Kongresua	KONFEKOOP
7	Euskadi-Nafarroako Enpresa Kooperatiboen I. Foroa	KONFEKOOP
8	Kooperatiban Berdintasun Plana ezartzeko programa	KONFEKOOP
9	Kooperatiban Berdintasun Plana ezartzeko programa	KONFEKOOP



# Kooperatibismoa sustatzea eta hedatzea



Zk.	2023o Jarduera / Programa	Erakundea
10	Kooperatibismoaren erantzunak Euskadiko hiri errealitate berrien aurrean	Euskal Herriko Unibertsitatea
11	Europar Batasuneko Gizarte Ekonomiaren ekintza plana: Euskadiko mugimendu kooperatiborako Lehentasunak eta Interesak zehaztea	Deustuko Unibertsitatea
12	Kooperatiba berrien sustapena	Elkar Lan
13	Finantza abalake ematea.	ELKARGI, SGR





## 2.3.2 Lankidetzak akordioak

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak hitzarmen bat sinatu du Bizikoop etxebizitza kooperatiben federazioarekin, zeinak etxebizitza kooperatiben eredu desberdinak modu bateratuan sustatzea duen helburu, etorkizuneko gatazkak saihesteko.



## 2.3.3 Kooperatiben Euskal Behatokia

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak bi bilera egin zituen 2023an Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin, Euskal Kooperatiben Behatoki baten balizko esparruan lan bateratua garatzeko, hurrengo topaketetan definituko dena.



## 2.3.4 Ekitaldietan parte hartzea

Amaitzeko, Goren Kontseiluak bere presentziarekin edo parte hartze ekonomikoarekin parte hartu duen hainbat ekitaldi zerrendatzen ditugu:

- Topaketa ICAko Think Thankekin
- Irakaskuntza Kongresua
- Energia kooperatiba baten lehen Batzar Nagusia
- CEPESen Batzarra
- KONFEKOOPen Batzarra
- Soldata arrakalari buruzko kongresua (Bilbo, ekainak 14)
- Elkargi enpresa topaketa, lehendakari berriaren aurkezpena
- Gizarte Ekonomiari buruzko Nazioarteko Konferentzia Donostian
- EAEko hiru unibertsitateetako ikasturte akademikoen irekiera
- LKSk antolatutako ekintzailtza kooperatiboko jardunaldia
- FOOD COOP dokumentalaren proiektiora joatea Zinemaldian
- Oñatiko adierazpena bultzatzeko jardunaldia
- Enpresa partaidetuaren ekitaldia
- Zuzenbide Kooperatiboaren Nazioarteko IV. Foroa: IUS Cooperativum kongresua
- Gizarte Ekonomiaren Europako Kongresua
- Enplegu azoka
- Gizarte Ekonomiaren jaialdia





Administrazioarekiko  
harremana  
eta administrazioari  
laguntzea



Kooperatiben 11/2019 Legearen 165.1 artikulua adierazten duen bezala, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua Euskadiko administrazio publikoen aholkularitzarako eta kontsultarako erakunde publikoa da, kooperatibismoari eragiten dioten gai guztietarako.

## 3.1 Aginduzko txostenen lanketa

Aholku emateko erakunde publikoa den aldetik, Goren Kontseilua da euskal administrazio publikoen aholkularitzaren arloko erreferentzia kooperatibismoari eragiten dioten gai guztietarako. Funtzio hori ekitaldi honetan egindako nahitaezko txosten horietan gauzatu da.

- Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2024. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen dekretua.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte ekonomiako enpresetan eta entitateetan elkarketa egiturak sendotzeko laguntzen deialdirako oinarriak onartzen dituen, eta 2023rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomian enpresek elkarren artean lankidetzan aritzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen, eta 2023rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, langileek enpresetan parte hartzeko laguntzen deialdiren oinarriak onartzen dituen, eta 2023rako deialdia egiten duena.

# Administrazioarekiko harremana eta administrazioari laguntzea

---



- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan Enpresaren Gizarte Erantzukizuna hedatzeko eta ezartzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituena, eta 2023rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, gizarte ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituena, eta 2023rako deialdia egiten duena.
- Kooperatiben arloko Zigor Prozeduraren Erregelamenduaren Dekretuaren Agindua.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomiako Enpresetan laguntza teknikoa emateko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituena, eta 2023rako deialdia egiten duena.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomiako Prestakuntzarako laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituena, eta 2023rako deialdia egiten duena.
- Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Dekretuaren Agindua.
- Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Agindua, Gizarte Ekonomiako Ekimenak egiteko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituena, eta 2023rako deialdia egiten duena.



## 3.2 Kontsultak

Euskal Kooperatibismoaren eremuan, letradu aholkulariak interpretazio juridiko orokorrari buruzko hainbat kontsultari erantzun die. Hau da kontsulta horien laburpena, kooperatiba moten arabera eta landutako gaien arabera.

KONTSULTAK (Landutako gaiaren tipologia)	
Erakundea	7
Organo sozialak	38
Erregimen ekonomikoa	19
Administrazio Publikoa	10
Likidazioa	178
Eraldaketa	36
Hainbat gai	63
<b>GUZTIRA</b>	<b>351</b>

KONTSULTAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	191
ETXEBIZITZAK	86
IRAKASKUNTZA	70
KONTSUMOA	1
GARRAIOLARIAK	2
KREDITUA	0
NEKAZARITZA	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>351</b>

## 3.3 Asmo Akordioaren sinadura

2023ko amaieran, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak (KONFEKOOOP) eta Eusko Jaurlaritzak kultura kooperatiboaren garapenarekin duten konpromisoa berretsi zuten, Asmoen eta Lankidetzan aritzeko Akordio bat izenpetuz berriro.

Idoia Mendia bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak, Patxi Olabarria Goren Kontseiluko presidentek eta Rosa Lavin KONFEKOOOPeko presidentek izenpetu zuten dokumentua, ahaleginak bateratuz eta enpresa kooperatiboak bultzatuz, Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialean laguntzeko helburuarekin, enpresa kooperatiboak horretarako ezinbesteko eragile dira eta.

# Administrazioarekiko harremana eta administrazioari laguntzea



Akordioaren helburua da lankidetzaren estua sustatzea Euskal Kooperatiben Mugimenduaren ordezkartza instituzionalean, kooperatiben esparruan enpresa berriak eta enplegua sustatzea, eta elkarren arteko lankidetzaren eta finantza tresnak eta pertsonen garapena eta gaikuntza indartzea. Halaber, euskal kooperatibismoa ezagutaraztea, kultura kooperatiboa garatzea eta Goren Kontseilua indartzea ere bilatzen dira.

Lankidetzaren publiko-privaturako tresna publiko honekin, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Kooperatiben Mugimenduak helburu partekatu bat gauzatzea bilatzen dute, hau da: hazkunde ekonomikoa pertsonaren garapen integralarekin bateratzea, horrekin gizarte jasangarriagoa eta kohesionatuagoa eraikitzen laguntzeko.

Asmoen eta Lankidetzaren aritzeko Akordio hori Goren Kontseiluaren historian izenpetu den hirugarrena da. Aurretik, 2005ean eta 2014an izenpetu ziren; beraz, dokumentu berri honek egungo une sozial eta ekonomikora eguneratzea eta egokitzea dakar.

## Administrazioarekiko harremana eta administrazioari laguntzea



Sinaduraren ondoren, eta Akordioak berak adierazten duen bezala, Batzorde bat sortu zen, bere helburuen jarraipena eta betetze zuzena ziurtatzeko. Batzordeko kideak hauek dira:

Bost kide, Eusko Jaurlaritzaren ordezkarri gisa:

- Lan eta Enplegu Saila. Maite Martinez, Lan Aktibazioko zuzendaria – LANBIDE–.
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila: Laura Alzola, Kontsumobideko zuzendaria.
- Hezkuntza Saila. Eugenio Jimenez, Ikastetxeen eta Plangintzaren zuzendaria.



# Administrazioarekiko harremana eta administrazioari laguntzea



- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila: Bittor Oroz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordea.
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila: Pedro Javier Jauregui, Etxebizitza sailburuordea.

Lau kide, KONFEKOOPEn ordezkari gisa:

- Rosa Lavin, Mikel Larrea, Pablo Durana eta Iñaki Nubla.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko bi kide:

- Patxi Olabarria presidentea eta Jokin Diaz presidenteordea.

Urrian eratu zen Jarraipen Batzordea, lan metodologia eta epeak adosteko, baita 2024ko hurrengo bileraren data adosteko ere.






## 3.4 Lankidetzak instituzionalak

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzarekin hainbat bilera egin dira 2023an, 11/2019 Legearen erregelamendua aurkezteko eta elkarrekin lan egiteko, baita Kooperatiben Erregistroaren Dekretua eta Zigor Araubidearen Dekretua jorrazteko ere.

Horrez gain, hainbat bilera egin dira eragile publikoekin, Donostiako ekonomia sozialeko hiriburutzaren ekitaldiak koordinatzeko.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako gobernuak berritu direla eta, lantalde berrien eta Kontseiluko ordezkarien arteko bilerak egin dira, erakunde horiekin lankidetzak akordio posibleak lantzen hasteko.







# Kooperatiben Erroldako datuak




## 4.1 Kooperatiba berriak

### 2023AN INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBA BERRIAK, KOOPERATIBA MOTAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

MOTA	Guztira	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
NEKAZARITZA	2	1	-	1
KONTSUMOA	17	1	7	9
BIGARREN GRADUKOAK EDO GORAGOKOAK	1	1	-	-
LAN ELKARTUA	131	17	50	64
ETXE BIZITZAK	20	3	15	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>171</b>	<b>23</b>	<b>72</b>	<b>76</b>

### Kooperatiben 2012-2023 bilakaera





## 4.2 Kooperatibak azkentzea: eraldaketak eta likidazioak

Goren Kontseiluari legez esleitutako funtzioetako bat da kooperatiben azkentze prozesuetan esku hartzea, kooperatiba formulari dagokionez. Esku hartze hori eraldaketa sozietarioak homologatzeko edo kooperatibak likidatzeko espedienteak izapidetuz gauzatzen da. Zentzu horretan, 2023an kooperatiba eraldatu eta beste formula juridiko bihurtzeko 9 espedienteri buruzko akordioak hartu dira, baita 87 likidazio espedienteri buruzkoak ere.

Bi kasuetan Goren Kontseilutik esku hartuta, 11/2019 Legean hala jasota baitago, bermatuta geratzen da funts banaezinak eta likidazio prozesuetako azken emaitza ere Kontseiluaren esku jartzea. Zentzu horretan, zenbateko horiek Kontseiluaren esku jarri ondoren, kooperatibismoa sustatzeko eta zabaltzeko erabiltzen dira.

Lehen aipatutako espedienteetan esku hartzeagatik, guztira, 3.946.364 € itzuli dira.

LIKIDATUTAKO KOOPERATIBAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	57
ETXEBIZITZAK	27
GARRAIOLARIAK	2
MISTOA	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>87</b>

ERALDATUTAKO KOOPERATIBAK (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	9
<b>GUZTIRA</b>	<b>9</b>



## 4.3 Kooperatiben errolda

### INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBAK GUZTIRA 2013-12-31N\*

MOTA	Guztira	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
NEKAZARITZA	113	55	30	28
ENPRESA TALDEAK	1	1	-	-
KONTSUMOA	64	7	22	35
KORPORAZIO KOOPERATIBOAK	1	-	-	1
KREDITUA	1	-	1	-
BIGARREN GRADUKOAK EDO GORAGOKOAK	46	10	13	23
IRAKASKUNTZA	104	13	47	44
ERKIDEGOAN USTIATZEKOAK	5	3	1	1
GIZARTERATZEA	1	-	1	-
MISTOAK	46	8	10	28
ENPRESA ZERBITZUAK	52	14	12	26
ZERBITZU PROFESIONALAK	40	7	19	14
LAN ELKARTUA	2.708	345	1.272	1.091
LAN ELKARTUA - JUNIOR KOOPERATIBA	4	-	-	4
GARRAIOAK	2	-	2	-
ETXEBIZITZAK	494	98	321	75
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.682</b>	<b>561</b>	<b>1.751</b>	<b>1.370</b>

### KOOPERATIBAK GUZTIRA, MOTAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA, 2023-12-31N\*

MOTA	Guztira	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
KOOPERATIBAK	2.009	351	926	732
KOOPERATIBA TXIKIAK	1.673	210	825	638
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.682</b>	<b>561</b>	<b>1.751</b>	<b>1.370</b>

\*Iturria: Kooperatiben Erregistroa.



# Gatazkak konpontzeko zerbitzua





## 5.1 Arbitraje Erregelamendu berria

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren osoko bilkurak, 2023ko uztailaren 20an, ordu arte indarrean egon den "Euskal kooperatibetan gatazkak konpontzeko prozedurari buruzko erregelamendua" indargabetzea eta "Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren arbitraje erregelamendu" berria onartzea erabaki zuen. Erregelamendu berri bat onartzeko arrazoia zera da: zerbitzua ematen hainbat hamarkadatan metatutako esperientziaren ondorioz, zerbitzuak, bere zorroztasun juridiko eta prozedurazkoagatik, ospe handia hartu badu ere kooperatiben munduan, esperientzia horrek hobetzeko moduko alderdi batzuk identifikatzeko balio izan du, etengabeko hobekuntza helburu. Hala, Erregelamenduaren hainbat artikulutan, prozedurazko eta teknika juridikoko hobekuntzak sartu dira, baita eboluzio teknologikoak gaur egun segurtasun juridiko egokiz erabiltzeko aukera ematen duten mekanismo telematikoak eta hizkuntza inklusiboa ere.





Lehen berritasun orokor nabarmenena da arbitraje erregelamendutik kanpo geratu dela adiskidetzeen arau esparrua, adiskidetzeak bideratzeko erabilitako denbora eta baliabideak optimizatzeko. Beraz, adiskidetzeak eta, hala badagokio, bitartekaritzak, arbitrajearena izango ez den prozedura desberdin bat izango dute, eta zerbitzu horiek, bai eta prebentzio eta prestakuntza zerbitzuak ere, zuzenean eskainiko ditu Goren Kontseiluak berak.

Araudia gauzatzeko Barne Batzordean parte hartu zuten pertsoneri eskerrak eman zaizkie.



### BITARTU

Euskadiko Kooperatiba Arbitrajeko Auzitegia  
Tribunal de Arbitraje Cooperativo de Euskadi

## 5.2 Euskadiko Kooperatiben “Arbitraje Auzitegia” - BITARTU-

Erregelamendu berriaren beste nobedadeetako bat Euskadiko Arbitraje Kooperatiboko Auzitegia izeneko sortzea da. Kide anitzeko organo bat izango da, eta izen handiko pertsonen osatuko dute, independenteek eta euskal kooperatiba zuzenbidean nahikoa autoritas edukiko dutenek. Auzitegi horrek interpretazio doktrina bakarra sortuko du, segurtasun juridikoa emango die eragileei, eta independentziaz jardungo du bere funtzioei dagokienez.

2023ko urriaren 5eko osoko bilkuran, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak Auzitegia osatuko duten pertsonen izendapena onartu zuen:



Titularrak: Alejandro Elejabarrieta (Laboral Kutxa), Rosa Otxoa-Errarte (EHU) eta Carlos Martin Ginto (Abokatua)

Ordezkoak: Eba Gaminde (Deustu), Alberto Atxabal (Deustu) eta Cristina Ochoa (Eroski).

Erregelamendu berriaren beste nobedadeetako bat Euskadiko Arbitraje Kooperatiboko Auzitegia izenekoa sortzea da. Kide anitzeko organo bat izango da, eta izen handiko pertsonak osatuko dute, independenteek eta euskal kooperatiba zuzenbidean nahikoa autoritas edukiko dutenek. Auzitegi horrek interpretazio doktrina bakarra sortuko du, segurtasun juridikoa emango die eragileei, eta independentziatik jardungo du bere funtzioei dagokienez.

### 5.3 Kontsultak, Adiskidetzeak eta Arbitrajea

Azken estatistikak aztertzean, arbitraje prozeduren espedienteak nola murriztu diren egiaztatzen dugu. Interpretazioa da arrakasta lotu dela, bai egiten den prebentzio lanagatik bai gatazkak konpontzeko arbitrajeaz harago ezartzen diren tresnengatik. Gainera, lortutako emaitzak gogobetegarriagoak dira esku hartzen duten aldeentzat, ez baita beharrezkoa hirugarren pertsona batek bientzako erabaki lotesle bat hartu behar izatea. Izan ere, horrek askotan gogobetetzetik eza sortzen du, gutxienez horietakoren batentzat.



<b>KONTSULTAK</b> (Aztertutako gaien arabera)	
<b>BAZKIDEEN ESKUBIDEAK</b>	
Informazio eskubidea	5
Zigor erregimena	5
Bazkideen eta lan eskubideak	16
<b>ORGANO SOZIALAK</b>	
Erabakiak aurkaratzea	19
Beste gai sozietario batzuk	41
<b>ARAUBIDE EKONOMIKOA</b>	
Diru kopurua erreklamatzeko baja sozietarioagatik	36
Beste gai ekonomiko batzuk	14
HAINBAT	8
<b>GUZTIRA</b>	<b>144</b>

<b>KONTSULTAK</b> (Kooperatiba motaren arabera)	
LAN ELKARTUA	39
ETXE BIZITZAK	82
IRAKASKUNTZA	14
KONTSUMOA	3
GARRAIOLARIAK	6
KREDITUA	0
NEKAZARITZA	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>144</b>



KONTZILIAZIOAK	
Bazkidearen eskubideak	1
Lanpostuko funtzioei buruzko gatazka	1
Etxebizitza kooperatiben hobekuntzak	1
Etxebizitza koop. Informazio eskubidea	1
Diru zenbateko bat erreklamatzea	2
Bazkidearen erantzukizuna	1
Informazio eskubidea	1
Lan baldintzak aldatzea	1
Ekarpenak itzultzea	5
Erabakia inpugnatzea	2
Ekarpenak itzultzea	1
Egiteko betebeharra	1
Erabakia inpugnatzea	1
Zorra aitortzea	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>20</b>



## Gatazkak konpontzeko zerbitzua



Hala ere, ekitaldian, ezohiko bidea 6 aldiz erabili da, hurrengo koadroan ikus dezakegun bezala, areriotasunik gabeko konponbide guztiak agortu ondoren. Kasu horietan, arbitrajean, arbitrajeak ezartzen duen prozedura arautuaren mende jartzen dira alderdiak, eta zerbitzu horren esku uzten dute arbitro bat izendatzea. Arbitro horrek erabaki loteslea hartuko du bi aldeentzat, zuzenbidea edo ekitatea aplikatuz, eta, ondorioz, eztabaida behin betiko amaituko da.

ARBITRAJEA	
Diru kopurua erreklamatzeko	3
Zehapena inpugnatzea	1
Erabakia inpugnatzea	1
Zorra aitortzea	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>6</b>

BITARTUren esku hartzea ez da soilik euskal kooperatibetako justizia auzitegien alternatiba gisa ulertu behar, baizik eta baita horren prebentzio neurrien sustapen gisa ere.





# Erakunde partaidetuak



## 6.1 Elkarlan, S.COOP

Elkar-Lan, S.COOP. bigarren mailako kooperatiba bat da, eta, 2003an eratu zenetik, bere helburua eta azken xedea izan da enpresa kooperatiboak sustatzea eta, ondorioz, enplegu kooperatiboa sortzea eta garapen ekonomikoa eta soziala lortzea.

Jaio zenetik, Goren Kontseilua horko bazkidea da, Konfekoopekin batera, eta une honetan hiru ordezkari ditu Kontseilu Errektorean: Patxi Olabarria eta Pablo Durana, Osoko Bilkurako presidente eta kontseilukide diren heinean, eta Belen Balerdi, Goren Kontseiluko idazkari nagusia den heinean.

Lurralde Historikoa	2023an sortutako kooperatiba berriak	2023an sortutako enpleguak
Araba	20	68
Bizkaia	57	116
Gipuzkoa	63	151
<b>GUZTIRA</b>	<b>140</b>	<b>335</b>

Euskadin 2023an sortutako 171 kooperatibetatik 140 Elkar-Lan, S.Coop. ek eratu ditu, eta guztira 335 enplegu sortu dira. Ondoren, eratu diren kooperatiben xehakapena aurkezten dugu, Lurralde Historikoen arabera.



## 6.2 Elkargi, SGR

22.000 euskal enpresak baino gehiagok osatzen duten Elkar Bermatzeko Sozietatea da, eta kooperatibek eta kooperatibista autonomoek presentzia handia dute bertan.

Elkargiren datuen bilakaerak 2018-2023 aldian berresten du 2023ra arte hazkunde jarraitua gertatu dela abalen formalizazioetan. 2023ko amaieran, 2018tik %50eko hazkundea egon dela baieztatu da. 2018tik 2023ra bitartean, 251,6 milioi izatetik 407 milioi izatera igaro dira. Arrisku biziari dagokionez, denbora tarte berean bikoiztu egin da. Aldi horretako kaudimen koefizienteak joera positiboa izan du beti, %16,8tik oraingo %14,3ra igaro baita.

Azken 5 urte hauetan, diru sarrerak hazi egin dira, bai inbertsio finantzarioen kudeaketagatik, bai lortutako emaitza operatibo positiboagatik, plantilla 92 pertsonarekin mantenduta.

Elkargi hazkunde eta eraldaketa prozesua mantentzen ari da 2022-2024ko Plan Estrategikoarekin, eta ardatz hauek ditu:

- Eraldaketa kulturala: lan giroaren hobekuntzari buruzko adierazleak.
- Bideragarritasun ekonomikoa eta hazkundea: helburu kuantitatiboak.
- Digitalizazioa: prozesu guztiak digitalizatzen aurrera egitea.
- Talentua: absentismoa %2,4 da, EAEko %8,4aren aldean, eta prestakuntza orduetara 724 bideratu dira, 2022ko ekitaldian bideratutako 151en aldean.







# 2023ko ekitaldi ekonomikoa



## 7.1 Balantze Ekonomikoa eta Soziala

2023	Gauzatua	Aurrekontuan jasotakoa
<b>SARRERAK</b>	1.185.223 €	1.131.773 €
Diru sarrera arruntak	663.300 €	663.300 €
Egitura Sarrerak	465.713 €	465.713 €
Beste diru sarrera batzuk	56.210 €	2.760 €
<b>GASTUAK</b>	1.189.965 €	1.131.773 €
Langileen gastuak	241.838 €	240.834 €
Funtzionamendu gastuak	123.016 €	102.776 €
Zuzeneko Gauzatzeen gastuak	359.398 €	322.450 €
Egitura gastuak	465.713 €	465.713 €
<b>Emaitza</b>	4.742 €	- €



Jarraian, Balantze Sozialaren datuak adierazten dira.

## Itzulera ratio batzuk

### Efizientziaren analisia eta balio banaketa

Parlamentuak finantzatutako € bakoitzeko (Kooperatiben Goren Kontseiluaren jarduerarako), 3,44 €-ko balio soziala sortu da 2022an, eta 3,55 €-koa 2023an.





## 7.2 Kudeaketa Planaren betetze maila

2022-2024 plan estrategikotik sortu den kudeaketa planaren ebaluazioa positiboa da. Planean garatu beharreko bost erronketako bakoitzean, garatu beharreko neurri batzuk zehaztu ziren, eta honako hau izan da horien betetze maila.

**1. Erronka.** Kooperatiba kopurua handitzea. Zazpi neurri identifikatu ziren, eta horietatik %43 egin dira eta %57 prozesuan daude.

**2. Erronka.** Kooperatibismoaren ikusgarritasuna hobetzea eta gizartean harrera hobea edukitzea. 24 ekintzatatik %75 egin eta %25 prozesuan daude.

**3. Erronka.** Kooperatibismoari buruzko ezagutza neurtzeko sistema bat garatzea. Hiru helburuetatik bi egin dira eta hirugarrena prozesuan dago, hau da, %67 eginda eta %33 prozesuan.

**4. Erronka.** Administrazio publikoen funtsezko aliatua izatea kooperatibismoaren garapenean. Sei ekintzatatik hiru egin dira, bat prozesuan dago eta bi ez dira hasi, hau da, %50 egin dira, %7 prozesuan daude eta %33 hasi gabe.

**5. Erronka.** Eginkizunen garapenean aurrera egitea eta modernizatzea. Identifikatutako 10 neurrietatik zortzi gauzatu dira eta bi ez dira hasi, hau da, %80 egin dira eta %20 hasi gabe daude.

Laburbilduz, kudeaketa planaren konpromisoen %90 baino gehiago garapen fasean daude edo dagoeneko egin dira.

Kudeaketa Planaren betetze maila

